

# Nafarkaria

• ostirala • 2001ko otsailaren 2a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan



**Areso** • Guraso Elkartekoak haserre dira alkatearekin eskolaren afera dela eta  
**Reyes Iraola** • «Film laburrak dira egun euskaraz egiten diren bakarrak»

# Egutegien denbora

a a a o o     a a a o o     a a a o o		
urtarrila 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CARNICERIA BLANCA MURARRIZ	otsaila 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 ALURTEN KORRIKA	martxoa 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 C. A. OBRASUNA
apirila 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CAJA LABORAL POPULAR	maiatza 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CIBRA	ekaina 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 C. A. OBRASUNA
uztaila 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CIBRA	abuztua 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CIBRA	iraila 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 SU ARMARIO ES-AMIA
urria 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CIBRA	azaroa 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CIBRA	abendua 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 CIBRA
a a a o o     a a a o o     a a a o o		

Poltsikoan daramagu, agendan ere bai, eta paretetan zintzilikatzen dugu, argazki izugarri ederrekin. Egutegia gure eguneroko bizitzaren parte garrantzitsua da, baina ez omen diogu batera garrantzirik ematen. Egunen eta hilabeteen ordenarik gabe ezin izanen ginatke bizi, baina ez diogu garrantzirik ematen, horren konponduta daukagu arazoa. Eta garrantzi ezak ezjakintasuna dakar. Ez dakigu kutxak emaniko poltsiko egutegiaren zenbaki zerrendaren atzean zein soluzio matematiko dagoen. Javier Bergasa matematikoak egutegien denbora ulertzen lagundu digu.

1998

ENERO-URTARRILA	FEBRERO-OTSAILA	MARZO-MARTXOA
ABRIL-APIRILA	MAYO-MAIATZA	JUNIJOEKAINA
JULIQUETAILA	AGOSTO-ABUZTUA	SEPTIEMBRE-IRAILA
OCTUBRE-URRIA	NOVIEMBRE-AZAROA	DICIEMBRE-ABENDUA

P. 19-XII-96 1995

Enero	Febrero	Marzo
Abril	Mayo	Junio
Julio	Agosto	Septiembre
Octubre	Noviembre	Diciembre

SEX

Avda. Barañáin, n.º  
 Tel.: 948 17 72 09  
 (Junto al Pinciano)  
 González Tablas,  
 Tel.: 948 15 42  
 (Antiguo Canal)  
 PAMPLONA  
 E-mail: haztegia@www.encomix.es

## Zizur Nagusia •

Udaletxe berrian herriko bandera berria zintzilikatu nahi du Udalak

**Zizur Nagusiko Gobernu taldeak bandera bat nahi du eta, horregatik, kanpaina abiatu du, herritarrek euren proposamenak egin ditzaten. Azken erabakia, baina, Udalak hartuko du.**



Zizur Nagusiko udaletxe berriko lanak eta herriko armarrria.

JOXE LACALLE

bandera egiteko batere beharrik ikusten, «herriko ohitura baita udaletxean batere banderarik ez zintzilikatzea». Hala ere, bandera sortzeko kontua aitzina aterako zela ikusirik, lehiaketa publikoa egitea proposatu zuen EHk. Baina ez zuten onartu.

Banderaren aukeraketa

zinegotzien esku egonen da, baina herritar guziek dute euren iritzia eta proposamenak alde aurretik emateko aukera. Aipaturiko koloreena ez da nahitaezko baldintza, baina armarririk halabeharrez egon behar du bandera erdian.

→ Daniel Urrutia

**B**ANDERA ZURIA, ERTZ URDINAREKIN. Halako bandera nahi du Udalak, herriko kirol taldeek kolore horietan erabiltzen baitituzte. «Herritarren sentimendua jasotzeko modua da», adierazi du Luis Maria Iriarte alkateak. Beste udal taldeek, ordea, ez dute proposamen zuri-urdin hori begi onez ikusi.

Kontua da Zizur Nagusia herri berria dela. Lehenagotik esistitzen zen, baina egungo 10.000 biztanleak urbanizazio-

ari esker lortu ditu. Horrek erran nahi du Zizur Nagusiko herritar gehienak herritik kanpo jaioak direla. Hau da, Zizur Nagusiak ez du inongo nortasun sentimendurik. Eta bandera batek hori lortzen lagunduko lukeela uste du Udalak. Antza, presaka dabilta. Udaletxe berria inauguratzen dutenerako bandera berria nahi du Udalak, eta lanak bukatzen ari dira.

EHk, Zizur Nagusiko bigarren indar politikoak, ez zuten

## Zangoza •

### Hitzaldi sorta historiaren inguruan

**Z**ANGOZAKO IKASTOLAK, Udalaren eta Nafarroako Kutxaren laguntzaz, hitzaldi sorta antolatu du heldu den asterako, «Ibilbide historikoa Nafarroa eta Zangozan zehar» izenburupean. Lau hitzaldi izanen dira, eta horretarako lau historialari bilduko dituzte.

Hasteko, asteartean, Tomas

Urzainkik Valdeloluengoko hitzarmena izanen du mintzagai, nola Nafarroak XII. mendean hasieran Aragoi nafarra galdu zuen. Hurrengo egunean, asteazkenean, Bixente Serrano Izkok «Nafarroa, gaztelarrek bereganatu aurretik eta ondoren (XVI. mendea)» izeneko hitzaldia eskainiko du. Ostegunean, Juan Kruz

Labeagak Zangozaren hiri bilakaeraz hitz egingen du, XVII. mendea erreferentziatzen hartuta. Azkenik, ostiralean, Mikel Sorrauren aro modernoko, XVIII mendeko, Nafarroako erakundeez ariko da. Hitzaldi guztiak kultur etxean izanen dira, 20:30ean, eta gaztelaniaz emanen dituzte.

Horrekin batera, Zangozako ikastolak euskal folk zikloa ere antolatu du. Urtarrilean Bide Ertzean taldea izan zen entzungai Auditoriumean. Otsailaren 16an, berriz, Mikel Urdangarinek kontzertua emanen du, eta otsailaren 23an, Pettik.

→ Asier Azpilikueta

Igandean, berriz, herrian eskean ibiltzeko lana izanen dute. Baina parranda egiteko aukera ez da herriko gazteentzat bakarrik. Bazkaldu eta gero dantza egiteko parada izanen baita plazan Modesto soinu jolearekin. Afaldu eta gero, erretiratzeko unea izanen dute, hurrengo egunean denek klasera edo lanera joan beharko baitute.

→ Eli Belauntzarán

## irulegitik

JOJO BIDART



## Hauteskundeek motorrak berotzen ari Iparraldean

**H**auteskundeak hurbiltzen ari zaizkigu Iparraldean. Egia erran ez da ez sukar handirik sendi oraino, baina konpetizioa aitzineko beroketarako izardi zorbait sortarazten du tokika.

Ez dira programak zabaldu oraino, baina ohartzen gira euskal kultura eta hizkuntzaren aldeko ikusmoldea azkartzen ari dela.

Euskal Herriari buruzko hitzarmenaren inguruko debeteak erakutsi badu funtsezko hizkuntz politika bat osatzeko zela oraino Iparraldean, horren beharra ikusten dute jende eta bereziki hautetsi gero eta gehiagok.

Itxurakeria? Moda hutsa? Ala egiazko aldaketa? Geroak erranen! Anartean euskal herriak, euskal nortasunak, hizkuntzak ez dute sekulan hainbeste aipamen ukan.

Denbora berean abertzaleak ez dira gehiago deabru-

tzat hartuak, eta ordezkatzaren tendentzia beharrezkoa bilakatua da herriko etxeetako hautagaien zerrenda osatzeko memento honetan.

Miarritzen bezala Angelun ere, abertzaleak gomiatu dituzte mahai nagusirat. Baionan, jeltzaleak bere ekipan jadanik integratu zituen auzapezak eta oposizioko sozialistek ere bereganatu nahi izan dituzte abertzale tendentziako zorbait ordezkari. Hendaiako Lassalette auzapezarekin agertu zirenak berriz deituak dira. Azkenean, proportzionaltasuna konduan hartzen duten 3.000 biztanle baino gehiagoko hirietan ez da dudarik euskaltzale abertzale tendentzia horrek sortzen duela interesa eta ondorioak neurtzen ahal direla hauteskunde aitzineko negoziotan.

Tendentzia bera ageri da herri ittipietan. Proportzionaltasunaren ordezkari gehiengoaren legea izanik, minorian

dagoen abertzaleen tendentziatik irrisku gutik ikusten badute ere herriko etxeetan, Donibane Garazin, adibidez, erabaki dute hautagaien zerrenda idekitzea eta zorbait aulki abertzaleei proposatzea. Ez dute berdin jokatzaren denetan, eta Baigorriko kasua hor dago erakusteko nagusitzen ari den jokamoldea ez dela oraino toki guzietako legea. Alde ezberdineko zerrendetan, abertzaleen presentzia zabaltzen ari: bazterkeriaren aroa gainditua den seinale, dudarik gabe. Aldi berean, errekupeketa eta diluzioaren arriskua aipatzen da.

Hautesle abertzaleen barreaketaren ondotik, hautetsi abertzaleen arteko hurbilketa bat baitezpadakoa izanen da, aitzinatu diren ideiei beharko den sostengua emateko eta hitzetik obretarat pasatzeko. Baina, horretaz hitz egiteko goizegi da oraino, eta utz dezagun hauteskunde- en zalaparta pizterat.

## Areso

### Mozorroak ate joka

**GAUR GAUEAN HASIKO DIRA** aurtengo inauteriak Areson. Musika eta giro ona ez da faltako Pake Toki elkarteak. Eta hotzari aurre egiteko, dena prest dute Aresoko gazteek, nahiko jan eta edari. Urtero bezala, larunbateko goizeko bederatzietan, lehen etxafuegoa bota eta gero, esnatzeko edo jaikitzeko garaia dela antzematen dute, gosaldue ostean baserrietatik eskean ibiltzeko prest egon beharko baitute.

Hamabost bat gaztek eta Jaione Olazabal soinu joleak herriko kaleak zeharkatuko dituzte, bertako giroa alaituz. Ondoren, baserrietara joko dute. Lau bat ordu beharko dituzte baserri guztietatik pasatzeko eta, bertan eskainiko zaien mokadua jan ostean, dantza pixka bat egin beharko dute.

Indarrak berreskuratzeko, Pake Tokin bazkaria prest izanen dute bueltatzen direnerako. Eta arratsaldean mozzorroak jantziko dituzte. Dantzaldia herriko plazan izanen da, eta ohiko tokietan txartela erosi dutenek, gaueko hamarretan, afaria egingen dute elkarteak bertan.

Igandean, berriz, herrian eskean ibiltzeko lana izanen dute. Baina parranda egiteko aukera ez da herriko gazteentzat bakarrik. Bazkaldu eta gero dantza egiteko parada izanen baita plazan Modesto soinu jolearekin. Afaldu eta gero, erretiratzeko unea izanen dute, hurrengo egunean denek klasera edo lanera joan beharko baitute.

# Areso • Bukaerarik ez duen kontua



ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Kometak

Kartoizko kaxak asko dira, eta beraien artean eserita nagoelarik zera esanen dizuet: bizitzatik kometen antzera pasatzen gara. Kometen antzera, gu, giza puska txiki hotz eta batez ere zikin eta batez ere argirik gabekoak eta batez ere bakardadean bizitzatik igarotzen gara ziztu bizian. Ez gara deus ere, apenas garen hori ere, baina hori bai: gure atzetik eramaten dugu kristoren buztan luzea, gu baino mila aldiz luzeagoa dena, kometen antzera, izotz puska txiki zikin horien antzera, gu. Eta bereziki etxe aldaketa egiterakoan nabarmentzen da buztan hori. Eta bereziki kartoizko kaxa pilatu, mardikatu horiek zabaltzerakoan, orduan konturatzen baikara zenbat eta zenbat gauza segika ditugun, redios, zenbat eta zenbat gauza. Esate baterako, hamar urterekin egin genuen marrakitzko hura; bai, hori. Behi bat da, omen, gorri dagoen zirriborro hori, ikastolan egindakoa, hor jartzen baitu: 4-A. Klasea, noski. Esate baterako, click de Famobilak. Zertarako nahi dituzu? Ez al zara handiegia jada? Pena ematen dizu jostailu txiki horiek botatzea. Eta liburu horiek, ez al da garaia guztiak, kaxa horretan dauden guzti-guztiak, zaramara botatzeko? Txarrak baino txarragoak dira guztiak. Orain konturatzen zara zein txarrak diren. Argakiak gero. Batez ere argazki solte horiek, inongo albumetan kokapenik aurkitu ez dutenak, zenbat oroimen, horiek ere buztan luzean pilatuak, gure iraganeko unibertso beltz horretan urrutira galtzen diren argazki solte horiek. Eta pape-rak, txikitxo horiek. Batean telefono bat ageri da. Norena? Batek daki. Eta nerabe izan zinen garaian idatzitako egunkari horiei buruz zer esan? Tamalgarriak dira goitik beiti! Inongo garrantzirik ez duten gauzei kristoren garrantzia ematen genien. Ai! Izotz puska txiki zikina, buztan luzeduna. Zenbat eta zenbat gauza dituzun atzetik segika! Deusetako ez ordea. Biluzik ez egoteagatik, besterik gabe. Unibertso beltzean argigarri izan litekeen zer edo zer eskura izateagatik, besterik gabe. Giza puska zikin eta txiki hori! ●

**Duela egun gutxi, Aresoko Guraso Elkarteko kideak bileran zeuden bitartean, herriko alkate Joxepa Onsalok eskolako atea itxi zien. Gurasoak etxerako bidea hartu zutenean konturatu ziren kanpotik itxita zegoela, eta Guardia Zibilak etorri behar izan zuen haiek ateratzera.**

**Guraso elkarteko kideak haserre dira alkateak eskolaren aferan egindako azkenarekin**



Aresoko eskolaren erabileraren inguruan topo egiten dute behin eta berriz alkateak eta Guraso Elkartekoak. ● ELI BELAUNTZARAN

Aresoko eskolaren inguruan azken urte hauetan sortu den aferak sekulan bukatuko ez den amesgaiztoa dirudi. Azken haserrealdia duela egun gutxi izan da. Herriko Guraso Elkarteko hainbat kide bileran zeudela eskolako atea itxi zieten. Elkarteko lehendakari Joxepi Marzolen esanetan, bilera 2000. urteko kontuak onartzeko eta hurrengo hiru hilabeteetan eginen dituzten ekitaldiak antolatzeke egin zuten, hauek alde aurretik onartuak izan baitziren Eskolako egitarauan. Joxepi Marzolek azpimarratu zuenez,

asteburu honetan herrian ospatuko diren inauterietako karrizak prestatzeaz, kirol jardueraz (xake, ping-pong), mendi irteeraz, informatika ikastaroaz eta beste hainbat ekitaldiez hitz egiteko bildu ziren.

Gainera, Elkarteko lehendakariak gogoratu nahi izan zuen informatika ikastaroa Eguberrietan egitekoa zela, baina Alkateak utzi ez zela bertan behera gelditu zela, irakaslea kontratatu eta gero.

Baina bilera bukatu ostean egoera «ikaragarria» bizi izan zuten. Marzolek esandakoaren arabera, iluntzeko zazpiak aldera, kalera ateratzeko intentziorikin abiatu zirenean konturatu ziren eskolako kanpoko atea itxita zegoela, eta gurasoak barrenean geldituko zirela Aresoko alkatea etorri arte, berak bakarrik baitu sarrailaren giltza.

Aresoko alkateak, Joxepa Onsalok, beste egunkari bati egindako adierazpenetan esan

zuen atea itxi zuela beste hainbat egunetan egin duen bezala, bestela, bere esanetan, sarri zabalik gelditzen delako eta barrenean gauza dezente puskatu izan dituztelako. Onsalok esandakoaren arabera, berak ez zekien Guraso Elkarteko kideek bilera bazutenik ere, eta harrিতa gelditu zen Guardia Zibilak esan zionean eskolara joan behar zuela atea zabaltzera. Kontua da kanpoaldetik itxita zegoenez, atea zabaltzeko giltza bakarra berak zuela, eta azaldu arte, gurasoek barrenean ordubete baino gehiago eman zuten.

Orain ikusi egin behar ko da nola bukatzen den afera hau, kuartelera eramanarazi baitituzte Guraso Elkarteko lehendakaria eta Eskolako zuzendaria. Guraso elkartekoek kaleratutako idatzi batean adierazi dutenez, Nafarroako Gobernuak erabaki beharko du zer gertatzen den hemendik aurrera, eta berak jarri beharko dizkio mugak Udalarari, eskolako ordutegitik kanpo egiten diren ekitaldiak edo ikastaroak bertan egiteko eskubidea baitute gurasoek eta umeek, nahiz eta alkateak esan Aresoko Udalak hainbat leku moldatu dituela horiek egiteko.

Orain ikusi egin behar ko da nola bukatzen den afera hau, kuartelera eramanarazi baitituzte Guraso Elkarteko lehendakaria eta Eskolako zuzendaria. Guraso elkartekoek kaleratutako idatzi batean adierazi dutenez, Nafarroako Gobernuak erabaki beharko du zer gertatzen den hemendik aurrera, eta berak jarri beharko dizkio mugak Udalarari, eskolako ordutegitik kanpo egiten diren ekitaldiak edo ikastaroak bertan egiteko eskubidea baitute gurasoek eta umeek, nahiz eta alkateak esan Aresoko Udalak hainbat leku moldatu dituela horiek egiteko.

→ Eli Belauntzaran

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Saint Christophe lizeoa

Senpereko Saint Christophe lizeoaren inguruan idatzi du Aitor Arotzena kazetariak **Ttipi-ttapa** aldizkariak azken zenbakian: «Duela hogeita hamar urte sortu zen Senperen Saint Christophe laborantzako lizeoa. Garai gartan, nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak eskaintzen zizkien gazteei. Baina Iparraldean baserriak indarra galdu zuen neurrian ikasle kopurua ere murrizten joan zen. Duela hogeita urte ikastetxe berriz berraztertzea ematea deliberatu zuten, ingurumenarekin zerikusia zuten ikasketak landuz, bi maila nagusitan: bat urari atxikia, erreka

teknikari eta arrain hazkuntza, eta bertzea, ihizi zaingoaren ofizioaren gainean. Albert Zubillaga zuzendariak erran digunez, lizeoan erakasten denak ez du gaur laborantzako tradizionalariekin ikusteko handirik. Pario bat egin zuten orduan eta apostu hori irabazi dutela erraten ahal da: duela hogeita urte 80 ikasle zituzten bitartean, gaur 220 dituzte».

«Alde guzietatik etortzen dira ikasleak Saint Christophe lizeora: «Hemen inguruko ikasle gutti da. Departamendukoak ehunentzat hogeita hamar izanen dira, Akitaniakoak erdiak edo eta bertze

erdiak Frantzia guzitik helduak direnak. Aunitz urtez izan ditugu Hegoaldeko bakar batzuk, bi-hiru, aurtan ez dugu batto ere».

«Klaseak ematen hogeita irakasle dira. Ingurumenarekin lotutako ikasketak izanik, ikastetxe barneko klase teorikoak ez ezik, ikastetxetik kanpo klase praktikoak ere izaten dituzte. Ihizi zainak mendirat ateratzen dira. Arrain hazkuntza eta erreka zain ikasketak egiten dituztenek praktikarako leku egokia dute ikastetxetik hurbil, arrain haztegia, alegia».

# Udaberriko ekinozioren egutegia

## Javier Bergasa

MATEMATIKAKO DOKTOREA

«Egungo gizarteak ez dio ematen egutegiari behar duen garrantzia»

Javier Bergasa Matematikako doktorea da eta astronomia atsegin du. Navarro Villoslada institutuan Matematika irakaslea izan zen eta egun Irakasleen Laguntzarako Zentroko Matematika aholkularia da. Duela guti, Gure egutegia eta bere aurrekariak izenburuko hitzaldia eman zuen uni-bertsitate publikoan, Matematika eta Informatika departamentuko hauta libreako irakasgai baten baitan.


**■ Non du jatorria gure egutegiak?**  
Egutegiak armonia lortu nahi du eguzkiaren eta ilargiaren mugimenduen artean, zenbait gertakari guk aurreikus dezakegun data batean izan daitezke. Adibidez, udaberriko ekinozioa martxoaren 21aren inguruan izatea. Hau da, denborari aurrea hartzeko beharrak sortu du gure egutegia. Horrela, denbora ongi zenbatzen dakigunez, denbora kontrolatzen dugula uste dugu.

**■ Zer-nolako garrantzia ematen dio egungo gizarteak egutegiari?**  
Ez zaio garrantzirik ematen. Poltsikoan daramagu, agendan, horman paratzen

dugu... baina ez dakigu deus gibelean dagoen soluzioaren inguruan. Egutegiak eguneroko bizitzako gauza anitz erraztu dizkigu, gu konturatzeke. Denbora antolatzeko arazoa horren konpondua dugu, non ez dakigun oso garbi zer den egutegia. Egutegia izugarriko ondare kulturala da. Milurtekoak kostatu zaigu hona iristea.

**■ Hau da, egutegia erabili bai, baina denborarekin zein harreman duen ez dakigu.**

Bai. Duela zenbait mende, jende gehienak ez zekien zehazki urtearen zein egunetan bizi zen, baina askoz harreman estuagoa zuen naturarekin. Ilargiaren faseak ezagutzen zituzten, zein konstelazioa ikus zitezkeen bazekiten. Egun hori guzia galdu da. Egungo gizarteak ez dio ematen egutegiari behar duen garrantzia. Hormetan argazki izugarri ederrekin zintzilikatzen dugun gauza da egutegia. Ez gara egutegiaz kezkatzen, hagitz erraza egiten zaigulako jakitea, adibidez, noiz izanen diren gure oporrak. Ez gara gai ikusteko zeinen zaila izanen litzatekeen bizitza egutegirik ez bagenu.



• MIKEL SAIZ

Erabiltzen dugun egutegiari aldaketa anitz egin dizkiote egungo itxura eman arte

**Egutegia askotan begiraten den gauza da. Zenbatetan begiraten diogu paretan dugun egutegi eder horri? Ez diogu, ordea, begiraten gainean duen argazki ederragatik. Zenbakiaren ordena interesatzen zaigu, horrek erranen baitigu zer egin egun batean edo bestean. Baina zeren arabera osatu da zenbaki ordena hori?**

**M**ESOPOTAMIAN DU JATORRIA GURE EGUTEGIARI. Javier Bergasa Matematikako irakaslea azaldu duenez, ilargi egutegia erabiltzen zuten orduan (eguzkiarekin lotuta). Eta horrek behartzen zituen hilabete bisurteak gaineratzea, ilargi hilabeteak 29,5 egun baititu. Mesopotamiako ezagupenak Greziara pasatu ziren, eta handik Erromara. Erroman aldaketa asko egin zizkioten; aldaketa juliotarra egin baino lehen, egutegi konplexua erabiltzen zuten, artzain jatorrikoa, ez oso erabilgarria, hamar hilabeteakoa (...September, October...).

**Julio Zesarren bisurteak**  
Kristo aurreko 46. urtean, Julio Zesar dikta-dorearen garaian, aldaketa garrantzitsua egin zioten egutegiari, aldaketa juliotarra. Sosigenes izeneko Alexandriako astronomo batek zehaztu zuen urte batek 365 egun eta

laurden zituela. Horregatik, lau urtean behin bisurtea egin behar zen, 366 eguneko urtea. Bergasak esplikatu duenez, «egutegiaren arazo nagusia da eguzkiaren urtebeteko mugimendua ezin dela egunetako mugimendu zehatzetan neurtu». Horrek ekarri du buruhausterik gehien. Sosigenesen urteak 365,25 egun zituen. Baina zenbaki hori ez zen oso zehatza. «Lurreko urte bat apur bat laburragoa da», dio Bergasak. Horregatik, Sosigenesen egutegiak eragin zuen udaberriko ekinozioak egun finkorik ez izatea eta martxoaren hasierara hurbiltzea.

**365,242533 eguneko urtea**  
Hortaz, 1582an beste aldaketa garrantzitsua bat etorri zen, Gregorio XIII.a aita sailduaren erreforma. Erreforma gregoriarrek zehaztu zuen urteak 365,2425 egun zituela.

**Egutegiaren aldaketa gregoriarrek hamar eguneko saltoa eman zuen 1582an, udaberriko ekinozioa martxoaren 21ean izan zedin. Santa Teresa Jesusena urte hartako urriaren 4an zendu zen, baina, erreforma zela medio, hilaren 15ean hilobiratu zuten**

Horren arabera, ehun zenbakiaren multiploak ziren urteak bisurteak dira, baldin eta lau zenbakiaren multiploak ere badira. Hala, 2000. urtea bisurtea izan zen, baina 1900.a ez zen izan, eta 2100.a ere ez da izanen.

«Geroago ikusi zen hori ere ez zela oso zehatza, eta azkenean urteak 365,242533 egun dituela zehaztu da», komentatu du Bergasak. «Eta, orduak gorabehera, lortu da udaberriko ekinozioa beti egun berean izatea, martxoaren 21ean». Hori baita egutegiaren helburu nagusia, zenbait gertakari beti egun berean izatea. Hori gauzatzen den ala ez ikusteko, udaberriko ekinozioa hartu da erreferentziazat.

Aldaketa gregoriarrean, 1582. urtean, udaberriko ekinozioa martxoaren 21aren inguruan izan zedin, hamar eguneko saltoa eman behar izan zuten. Horrek zenbait gertakari



## Izabar baten erreforma saioa

IDURI DU EGUNGO EGUTEGIA APUR BAT ANARKIKOA DELA. Hilabete batzuek 30 egun dituzte, eta beste batzuek, 31. Eta otsailari egunak falta zaizkio. «Horregatik, ez da araroa historian zehar egutegia arrazionalizatzeko saioak egon izana», dio Javier Bergasa irakasleak. «Frantziako Iraultzan egutegi dezimala ezartzen saiatu ziren, baina, azkenean, hilabetei izena aldatu besterik ez zuten egin». Egutegia arrazionalizatzeko saio gehiago egon ziren. Horietako bat nafar batek egin zuen, XVIII. mendearen erdialdera. Izabako Miguel Hualde fraide karmeldarrak zenbaki kontuak atsegin omen zituen. Bergasak dioenez,


«Erromara joan zen bulda eskatzera, gai horren inguruan lan egiten utz ziezaioten, eta gortera ere joan behar izan zuen bere ideia esplikatzera». Hualdek heziketa eskasa zuen nonbait. «Aritmetika bat idatzi zuen, baina akats handiak zituen», dio Bergasak. «Egutegiaren erreforma zenbakiaren garrantzia oinarritu zuen. Baina erreformak ez zuen ez hanka ez buru. Adibidez, bisurteak jartzeko bost urteko taldeak ezarri nahi zituen». Hualderen erreforma, garaiko beste erreforma askoren antzera, unibertsitatean eztabaidatu bai, baina ez zuten onartu, «oinarri sendorik ez zuelako».

taera bitxi sortu zuen. Konparazio baterako, Santa Teresa Jesusena urriaren 4an zendu zen, baina urriaren 15ean lurperatu zuten. Gorpua, baina, ez zen hamar egunetan lurperatu gabe egon. Kontua da 1582an urriaren 4aren hurrengo eguna 15a izan zela.

**Agintari erlijiosoen interesa**  
Edozein erlijiotako agintariak beti saiatu dira egutegia kontrolatzen, egutegiak markatzen baitu jendeak egun batean edo bestean zer egin behar duen. Bergasak dioenez, Eliza Katolikoari egutegiaren funtzionamendua zehaztea interesatu zaio Pazko eguna ongi finkatzeko. «Izan ere, ospakizun erlijioso mugikor guztiak udaberriko ekinozioaren arabera dira», erran du. «Berpizkunde Igandearen arabera finkatzen dira, udaberriko ekinozio osteko lehen ilbetearren osteko lehen igandea.

Hortaz, bi gertaera astronomikoren menpe dago egun kristauen finkatzea». Bestetik, gertaera zibil, politiko edota militarrek ere egituratu dute egutegia anitzetan. «Adibidez, ttikitan irakasten digute ukabilarena jakiteko ea hilabete batek 30 edo 31 egun dituen», dio Bergasak. «Baina uztaile eta abuztuarekin txandaketa apurtzen zaigu. Kontua da Erroman uztaile Quintilis izan zela, harik eta Julio Zesarren omenez, *Julius* jarri zioten arte. Julioaren ostean Oktavio Augusto enperadorea etorri zen. Orduan pentsatu zuten horrek ere merezi zuela hilabete bat, eta abuztua eman zioten. Baina, noski, Augustoren hila-beteak ezin zuten Julioaren baino egun bat gutiago izan; eta abuztuari 31 egun eman zizkioten. Eta, noski, egun hori otsailari kendu zioten, betiko hilabete komodia. Horrelako kontuek finkatu dute gure egutegia».

**Egutegiaren anarkia**  
Erromatarren gorabeherak ekarri zitoten egutegiari itxurazko anarkia hori. «Egutegia modu arbitrarioan egitura dezakegu», aipatu du Bergasak. «Baina gertakariak egun zehatzetan izatea nahi badugu erreallitatean moldatu beharko dugu. Egungo egutegiak erreallitatea islatzen du. Itxura logikoagoa ematen ahal diogu egutegiari, baina galduko genuke aurretik dator-kigun ondarea. Gainera, orain oso zaila litzateke aldaketa bat egitea. Oso kontserbadoreak gara».



1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Egutegiari anitzetan begiraten diogu, ez duen irudi ederragatik, baizik eta hilabeteen egunen ordenagatik. Horrek markatzen baitu egun bakoitzean zer egin.

MIKEL SAIZ

→ Asier Azpilikueta

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Ele txotxak! (II)

Honezkero sagardo garaian labaindurik txotxetik edateko urrupada labor ugariak dastatzeko garaia dukegula, zerk eragotz diezaguke idatz kontuetan ere, edalontzia eskuan zutik eta upelaren txorrota lagun, eleak txurku-txurku kolpeka ber moduan edatea?



#### Simonena medikua euskalduna ote?

Antonio Simonena Zabalegi Iruñean jaio zen, 1861ean. Medikuntza ikasketak Bartzelonan egin ostean, mediku jardun zuen Erratzun, 1891 arte. Baztandik Santiagora eta handik Valladolidera joan zitzai-gun orduan, 1907an Unibertsitate Zentralaren katedra erdietsi zuelarik. Madrilen geratu zitzaigun bada 1941ean zendu arteraino. Argitara gabe dirauen giltzurdinaren eritasunen inguruko tratatu baten egilea, politikan ere sartu zuen musturra, eta Bata-sun Katolikoa-ren senadore jardun zuen. Simonenaren biografiari jarraiki, ezin dugu esan garbikiro euskalduna izan zenik. Erratzun labor egon izana nahikoa frogatzen da. Badugu, ordea, honen frogatzeko testigantza, euskarak XX. mende hasieran Iruñean zuen indarraren lekukotasuna azken buruan. Baztango idazkaria izan zen Manuel Irigoien Olondritz aniztarrak *Noticias históricas y datos estadísticos del noble valle y universidad del Baztán* izenburuko liburua eman zuen argitara 1890ean, Iruñean. Nafarroako liburutegi nagusian gordetzen den alea Simonena osagilearen liburutegitik hartua bide da, ez daki-gu zein bidetik horretara iritsia baina. Edozein modutan ere, lehenbiziko orrialdean Irigoienek berak izkiriaturiko eskaintza badugu, euskaraz, Simone-na medikuari egina, tamalez, liburu osoan agertzen zaigun euskarazko pasarte bakarra, eta dudarik gabe, Simonena euskalduna zelako nahikoa frogatzen dena.

#### Mutuberria

Atanasio Mutuberria katolizismo soziala Nafarroan abian jarri zuen pertsona dugu. Tafallan 1865ean jaioa, Zaragozako josulagunen ikastetxean ikasi zuen sorterrira itzuli aitzin. Aita zurgina zuen, eta sendia aberastu zen eiki herentzian hartu zituen Tafallako zein Kaparrosoko lur zabalei esker. Leon XIII.a aita santuak jaulki *Rerum Novarum* eta *Graves de Communi* entzikliketan oinarriturik lan itzela egin zuen

Tafallako Kristau Zentro-

kutxa izan zen, Yoldiren eta Flamariqueren ahaleginen aitzinetik naski. Politikoki, ordea, Mutuberria integrista izan zen, eta Alderdi Integristaren izenean zinegotzi jardun zuen Tafallako Udalean 1916-1910 urte bitartean. Sorterrian zendu zen, 1913an.

Idazle ere bagenuen izan Mutuberria tafallarra. Bere lanen artean Aurrezki Kutxaren araudia bera aipa daiteke, *Estatutos y reglamento de la Caja de Ahorros Agrícola de Tafalla precedidos de un informe sobre proyectos de los mismos*, Tafallako Valerio Albenizenean, 1902an. Interesgarriagoa da 1904ko urriaren 20an estreinakoz atera zuen *El Labrador* astekaria, apaiz-ek idatzirik nekazari gaietako argitalpena, 1905eko irailaren 7a arte berrogeita zazpi zenbaki izan zituen. Halaber, Mutuberria ezaguna da 1912an Iruñeko Aranzbururean *Mirando al centenario de las navas de Tolosa* mito historikoaren zazpiehungarren urteurrena zelata egin liburuarengatik, topikoz beteriko lan tipikoa hain zuten. Ezezagunagoa da, baina, 1909an argitara eman zuen *Patronatos de la mujer* idazkia. Bertan emakumeen aldeko jarrera sustatu zuen, gizonen eskubideak defendatzeko hamaika erakunde sozial egiten zen une haieran, emakumeen eskubideekin ber gauza egiteko batera sortzen ez zelako asaldaturik. Emakume langileen beharren inguruan aritu zen Mutuberria, baita hauen eskubideak bermatuko zituzten erakundeak gizarte txertatzeko formulaz ere.



tik, dena dela, bere lanik ezagunena Joakin Zalduendo apaizak sortu Nekazari Kutxaren inguruan egin zuen. Komunzki Mutuberria kutxa honen sortzailetzat jotzen bada ere, bere lehenbiziko zuzendaria izan zen 1902az geroz. Tafallako Kutxa, bestalde, Nafarroan martxan jarri zen lehenbiziko



## panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Otsailak 2. Eskailerako maldan bigarren urratsa. • MIKEL SAIZ

### PTV

«DE PAMPLONA DE TODA LA VIDA». Hiritar hauek beren sorterria maite dute. Neurritz gaineko amodio txoroa eta itsua da. Haien ustez, mundu osoan ez dago Iruñea bezalako lekuri jaiotzeko, bizitzeko eta hiltzeko. Agian, besterik ere ez dutelako ezagutu. Benetako PTV bat izateko bertakoa izan behar da.

Ortodoxiaren ordezkariak dira. Dotrina ematen dabilta etengabe. «Gurea da onena, gora Iruñea! gora gu eta gutarrak!». Hemen sortzeak eskubide batzuk ematen dituela uste dute. Beste hiri kokorretan ere gertatzen den fenomeno da. Globalizazioaren garai hauetan, tokian tokiko aldarrikapen gehiegizkoa. Hala ere, odolean Iruñeko Rh garbia dutenak ez dira hainbeste. Betidaniko iruindar gutxi dago. Gehienon kasuan, gurasoak heritik hona aspaldian etorri ziren, edo oraindik ere bertan bizi dira. Beraz, bi belaunaldi baino gehiago hemen daramatzatenak ez dira asko.

PTVko kideak Alde Zaharrean edo Zabalgunean hazi eta hezi izan dira. Kide erradikalenen ustez, hiri erdigunetik kanpo dagoena ez da Iruñea. Azken hamarkadetan, ordea, asko zabaldu da hiria. Aspaldikoa da iruindarrek elkar ezagutzen zuteneko garaia.

Bestetik, PTVkoen anaia pobreak Iruñeko *kastak* dira. Harro daude iruindar izateaz. Nortasun bikoitzeko lagunak dira. Aste Santuan, prozesio-

an, mozturro jantziarekin ikus daiteke kasta, nahiz eta fede gehiago dion ardo zzzahatari. Egunez emaztearekin ibiltzen da paseoan, eta gauetz, koadrilakoekin txikiteoan Estafeta kaletik. Igande goizetan mezetara doa zintzo demonio, baina arratsaldean Sadaarren epailearen amarekin akordatzen da. Botoa UPNri ematen dio; hala ere, *vasconavarro*-tzat dauka bere burua.

Azkenik, PTV eta kasten seme bihurriak Iruñeko *jatorrak* dira. Jatorra berez jatorra da. Iruñea bihotz-bihotzez maite du. Bertakoa izanik ere, zabalik ditu begiak eta bēsoak. Kanpotik etorritako inor ez du baztertzen. Ez du bere sorterriaren apologia egiteko inongo beharrik. Gustura bizi da hemen. Bertako ohiturak ezagutu eta errespetatzen ditu. Garai batean Pueblo Trabajador Vasco-PTVko kide izanikoa (ORT, EIA, LKI, CSUT, PTE...). Gaur egun, mendizaleen taldean soilik emana du bere izena.

Batzuek eta besteek gaurko egunarekin, otsailaren 2an, afaria egiten dute. Eskailerako maldan bigarren urratsa emateko prest daude aurten ere sanferminetako gailurrera iritsi aurretik. Batzuek eta besteek jateari eta edateari ez diote muzin egiten. Ez orain, ezta jaietan ere.

PTV taldekoak etxean edo Napardi bezalako izen handiko elkarteetan; kastak eta jatorrak soziedadean edo peñan afaltzeko bilduko dira gaur gauean. On egin!

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Itzultzailea

ZENBAIT GOGOETAK EZ OMEN DU ERANTZUNIK BEHAR, ETA hala gertatzen den bakanetan; arrapostuak muina saihesten duten kalakak izaten ohi dira. Alta, ez dira urri *itzultzaileak* egin azterketa gogoetarako bide hartu dutenak. Horren gorpuzteak ez digu kalterik egiten, itzultzea ez da atzerapauso.

# Reyes Iraola

KARRIKIRIKO ZINEMA BATZORDEKO KIDEA

## LO QUE LA VERDAD ESCONDE

NO REC MEN

8 00

”EUSKARAZ”

## ASTERIX Y OBELIX CONTRA EL CESAR

«Film laburrak dira

# egun euskaraz egiten diren bakarrik»

Joan den ostiralean jarri zen abian, Iruñeko Golem Zinematokietan, Karrikiriren *Zinema euskaraz*

*Iruñean* zikloa. Hamar film eskainiko dituzte zikloaren baitan, bost luze eta bost labur.

Euskarazko zinema bultzatzea eta horiek emateko espazioak sortzea da antolatzaileen helburua.

**R**EYES IRAOLA DA ANTOLATzaileetako bat, Karrikiriko zinema batzordeko kide eta zinema kritikaria. Zikloaz eta, oro har, euskaraz egiten den zinemaz mintzatu da gurekin.

■ **Laugarren urtez antolatu duzue *Zinema euskaraz Iruñean* zikloa; sendotuta dagoela erran daiteke?**

Nik hala uste dut. Iaz nabaritu genuen interesa bazegoela. Sarrerak saltzen hasi bezain pronto jendea berehala etorri zen bila. Aurten ere jende asko etorri da guregana zikloa noiz hasiko zen galdetzera. Filmak atsegin eta erakargarriak dira, eta guztiak ikusteko bonoa 2.000 pezetaren truke eskuratzeko aukera dago.

■ **Lau urte hauetan asko aldatu al dira gauzak, hau da, errazago al da orain euskarazko filmak aurkitzea?**

Egoerak hobera egin du. Lehen urtean arazo asko izan genituen, eta erakutsi genituen filmak aurreko urtean bikoiztuta-koak ziren. Aurten aukeratu ditugunak, berriz, aurten bikoiztuak dira. Aukera, gainera, lehen urtean baino zabalagoa da; film gehiago dago aukeratzeko. Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen programa ere badago, eta,

horri esker, film gehiago bikoiztuko dira, estreinaldiak ere izanen dira, eta uste dugu gure ahalegin xume honek ere eragina izan duela. Golemetan oso gustura daude, eta konturatu dira gure aretoan besteetan bezainbeste jende izaten dela.

■ **Zikloaren aurkezpenean azpimarratu zenuten euskarazko filmak bistaratzeko espazioak bultzatu nahi dituzuela.**

Bai, eta urratsak egiten hasi gabela uste dut. Lehen urtean aipatzen genuen bazegoela halako zirkulu itxi bat: jendea ez zegoen ohituta euskarazko filmak ikusten, eta jendea zinemara joaten ez zenez, filmak ez ziren bikoizten. Baina pixkanaka egoera aldatzen ari da, eta orain argi dago gazteek badutela ohitura euskarazko produktuak ikusteko, Euskal Telebistari esker.

■ **Nolako kalitatea du hemen egiten den bikoizketa lanak?**

Nik uste dut nahiko ona dela, eta aurten, sari berezi bat emanen dugu bikoizketa lan onenarentzat. Lan hori azpimarratu eta egiten den ahalegina saritu nahi dugu. Orain arte, inolako laguntzarik gabe egin da bikoizketa. Egoerak hobera egin du, dudarik gabe, eta hizkuntzan ere

gero eta gehiago saiatzen dira erabiltzen den euskara islatzen. Hasieran, inork erabiltzen ez zuen euskara entzuten genuen, baina hori ere gaztelaniaz gertatzen da. Gertatzen dena da ohitu egin gabela, eta euskaraz ere ohitura hori hartzen ari gara.

■ **Orain falta dena da jatorrizko bertsoa euskaraz duten film luzeak egitea. Oso zaila al da hori lortzea?**

Oso zaila. Batetik, gaztelaniazko bertsoa beti beharko da, bestela oso murrizta delako merkatua. Behar da halaber aktore guztiak euskaldunak izatea, edo euskaraz lan egiteko prest egoeta. *Maite* filmean, adibidez, pelikula gehiena euskaraz zegoen. Eta horiek egoera hobetzen lagunduko dute. Baina orain dauden zuzendariak ez dira euskaldunak.

■ **Egoera ezberdina da film laburren**

**esparruan; lan asko egiten da euskaraz.**

Bai, hala da, mugimendu handia dago. Guk, gure zikloan, egiten diren lanak bistaritzen ditugu urtero, eta, aurten ere, lanik onena sarituko dugu.

■ **Horrek erran nahi du egun laburrak egiten ari diren zinemagileek euskarazko film luzeak egiten dituztela noizbait?**

Egoera hobea izanen da, ziu-rrerik, baina kontuan izan behar dugu asmoak ez direla berak film labur edo luzeak egiterakoa. Film labur bat egitean, bada-kite areto komertzialetan leku gutxi izanen dutela, eta jaialdientan mugitu beharko dutela. Luze bat egiteko, ordea, ekoizle bat beharko dute, eta ekoizle hori ados ez badago zailagoa izanen da proiektua aurrera ateratzea.

Baina pixkanaka urratsak egiten direla uste dut. Badaude, gainera, ekimen honen alde dauden ekoizleak. Ekoizleek ikusi behar dute produktua saltzen dela, eta ikusten badute euskaraz lan egiteak ahalegina merezi duela, egingo dute. Jendeak aretoetara joan behar du horretarako, eta zinemara joateko, eskaintza ona nahi du jendeak. Dena lotuta dago.

→ **Edurne Elizondo**

### soslaia

Zinema aspaldiko, betiko, zaletasuna da Reyes Iraolarentzat. Kritikak irakurtzetik kritikak egitera igaro zen Karrikiri elkarte kidea, Euskalerrira Irratiri esker. 1994. urtean hasi zen zinemari buruzko saioa egiten, eta duela gutxi arte aritu da.

Era askotako filmak gustatzen zaizkio Reyes Iraolari, «denak, Hollywoodoko produktu prefabrikatuak» izan ezik. Zinema beltza gustatzen zaio, zientzia fikziozkoa, amodiozkoak, komediak...

Zuzendarien artean, berriz, Woody Allen gustatzen zaio gehien, eta, hemengoen artean, Julio Medem eta Juanma Bajo Ulloa. Europako zinema ere atsegin du, bai eta Hego Amerikakoa ere. Laburbilduz, zinema biziki maite du Reyes Iraolak.



## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Inurriaren lana eta elefantearen indarra

**A**ri eta ari dira-dira, tira eta tira etengabegabe. Harro-harro, baina batez ere itsu-itsu, ez dute-dute ikusten oztopo-toporik.

Zorionez, batek bere ingurunean ikusten duena nahiko itzaropentsu egoteko modukoa da, edo bederen horretarako arrazoiak badira. Nafarroako euskaldunok, pixkanaka bada ere, ari gara gure jarrera eta ohiko jokamoldeak aldatzen. Urteotako mespretxu, irain, erdeinu, iseka eta makilkaden ondotik, azkenengo tantek ez dute basoa gaineztatu. Hau aspalditik kabitu ezinik zegoen eta itsaso zabalean galdu dira, mendeetan zehar jaurtikitako horiekin batera. Baita betiko galdu ere.

Sinetsi nahiko nuke azkenaldi honetan euskalgintzak agertu duen patxada ez dela erantzuteko ezintasuna edota, makurrago litzatekeena, etsipena. Sinetsi nahiko nuke, eta horregatik sinetsi egiten dut, akituta, nazkatuta eta errabiatuta gauden euskaldunok irrimo baina aldi berean adimen handiz ari garela. Erasoiei entzungor, gurean tinko, bide berriak irekiz eta daudenak sendotuz. Inurriaren lana elefantearen indarrak eginez.

Ez diogu karrikara ateratzeari uko egingen, baina eguneroko lanean eta ahaleginak biderkatuz lortuko dugu aurrera egitea. Eta erasoak biderkatuko dira, haien aurrean axolagabeberria erakustea oso mingarria egiten zaielako. Hortaz, bide onetik ari gara. Akaso, dordokaren abiaduran, baina mandoa bezain temati.

Euskaldunok garen neurrian, harro agertu behar dugu eta amasa hartzea ukatzen diguten horiek botatzen diguten enbidoari noizbait hordago batez erantzun beharko diogu. Noiz arte onartu behar dugu erabat erdalduna den Universidad Pública de Navarra batentzat gure zergak bideratzea? Noizko erdara hutsean jasotzen ditugun inprimaki guztiak zuzenean zakkarrontzira bidali? Noiz arte segitu behar dugu euskararentzat aurrekontu apur horiekin, aurpegia zein ederki zuritzen duten ikusten dugun bitartean? Haserre nago, bai. Batek baino gehiagok behi hauek erotuta daudela esanen du. Nik, Atxagaren moduan, zera erantzungo nuke: ero agian bai, baina behi hauek euskaldunak dira eta hala nahi dute izan.

#### MUSIKA

- ▶ **Azkoien:** Tahures Zurdos eta Extraños taldeek udal frontoian joko dute gaur, gaueko hamabietatik aurrera.
- ▶ **Lodosa:** Koma, EH Sukarra eta Arriskua taldeen kontzertua izanen da bihar, zezen-plazan, 23:00etatik aurrera, Nafarroa Oinezan alde.
- ▶ **Iruñea:** King Putreak eta The Vientre taldeek Txantreako Akelarre tabernan joko dute, asteazkenean, 21:30ean.

#### ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren baitan, gaur, Asterix eta Obelix Zesarren aurka filma eta Sarabe film laburra pantailaratuko dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

#### HITZALDIAK

- ▶ **Iruñea:** Asteartean, Oviedoko Unibertsitateko Psikologia katedradun Marino Perez Alvarezek lotsa eta errua sentimenduak izanen ditu mintzagai, 20:00etan, Nafarroako Kutxako hitzaldien aretoan.

#### ERAKUSKETAK

- ▶ **Atarrabia:** Umesh Villar Lopezen akuarelak hilaren 9a arte ikus daiteke, Kultur Etxean, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.
- ▶ **Tafalla:** Ernesto Otxoa Sainz mendabiarraren margolanak Kultur Etxean ikus daitezke, otsailaren 11 arte.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Blanca E. Zuzaren margolanak kultur etxean daude ikusgai, hilaren 18a arte, lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- ▶ **Zangoza:** Hilaren 24a arte Xabier Santxotenen Burdinari gorespina proiektu esperimentalak ikus daiteke, Kultur

Etxean, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.

- ▶ **Iruñea:** Pintzel galerian (Abejeras, 6) Mari Jose Rekalde eta Juan Maria Sukilbide artisten lanak daude ikusgai; lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

#### IKASTAROAK

**Iruñea:** Gaur arte zabalik da Txantreako Auzotegiko ikastaroetan izena emateko epea: eskulanak, euskal dantzak (Txantreako ttuntuna barne), dantza latinoak, pintura eta marrazketa, yoga (haur eta helduendako),

sukaldaritza, astrologia eta trikitixa (haurrendako). Informazio gehiago Auzotegin bertan eskura daiteke, 18:00etatik 21:30era.

#### LEHIAKETAK


- ▶ **Elizondo:** Aurtengo Baztandarrren Biltzarra iragartzeko kartel lehiaketa abian da. Kartelean honako testua agertuko da: Baztandarrren Biltzarra 01. Elizondon, uztailearen 22an. Eskuarak batzen gaitu. Kartelaren neurriak 50x70 zentimetrokoak izanen dira, gehien jota. Off-set sistemak onartzen dituen

teknika eta kolore guztiak erabili daitezke. Irabazleak 50.000 pezeta (2.000 libera) eskuratuko ditu. Lanak martxoaren 3a baino lehen entregatu behar dira honako helbidean: Baztandarrren Biltzarra Elkarte, 22 PK, 31700, Elizondo.

#### BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Bihar, ohi denez, Arkakusoen Azoka Ttikia egingen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Bertan, antigoaleko eta bigarren esku-ko objektuak saldu edo trukatzeko ahal dira.

• JOXE LACALLE



## Karikaturak

EHk Franco, Aznar, Del Burgo, Sanz eta Barcinaren karikatura bana paseatu nahi izan zituen Iruñeko karriketatik iragan larunbatean. Espainiako Poliziak manifestazioa eragotzi zuen panpinok «iraingarriak» zirelakoan. Izan ere, politikarien argazki handiek Hitler zenaren bibotexoa zuten sudur azpian, baita Francok berak ere. Panpina guzietan zuten eskuineko besoa faxisten gisara altxatuta, baita Francok berak ere. EH otsailaren 10ean saiaturiko da manifestazioa berriz egiten. Espainiako Zuzenbide Estatua probatzen segitu nahi badute, hona hemen proposamen bat; atera ditzatela beste lau panpina: Franco, Arzalluz, Egibar eta Imaz; laurak, bibote eta esku altxatuarekin. Ea, errealitatearen karikatura horretan, lauretatik zein jotzen duten «iraingarritzat».